

## ADOAIN-GO ESTEBAN AGURGARRIAREN MENDEURRENAZ

*Donostia, 1980-X-30*

*Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi*

Euskaltzaindiko azken batzarrean Adoain-go aita Esteban agurgarriaren omenaldia aipatu zen. Denbora gutxi zegoen egitaraua gertatzeko eta berehala hasi ginen lanean. Oroit-harria agindu nuen lehenik eta Urriaren zortzirako egina izango zela hitzeman zidaten.

Urriaren zortzia zen, hain zuzen ere, omendua hil zen eguna. Egun horretan betetzen ziren, beraz, ehun urte. San Martin, Zearreta eta neu joan ginen, oroit-harria Iruñean harturik, Adoain-go herrira. Kaputxinoen Kongresoan batzartuak ziren lankideek egin zioten egun horretan beren omenaldia. Iruñetik joanak omen ziren, eta gu iritxi orduko amaitua zuten beren lana.

Bertako alkatea J. De Carlos jauna, eta erretorea Marzelino Garde, euskaltzain urgazlea, agurtu genituen lehenik. Aita Ancin, aldaretaratzeko arduradunen batzordeko buruordea ere joan zitzaigun.

Oroit-harriarentzat tokirik egokiena nun zen ikusi ondoan, eliza berritzeko lanetan zebilen arginak ezarriko zuela gurea ere hitzeman zigun. Eta besterik gabe itzuli ginen etxera.

Urriaren 11-an zen gure omenaldiaren eguna. Adoain-go Esteban aitaren jaioteguna, beste alde. Lunbierren batu ginen P. Lafitte, J. San Martin, J. M. Satrustegi, euskaltzain osoak; eta J. L. Lizundia, Etienne Salaberry eta Hospital euskaltzain urgazleak. Bazkal ondoan abiatu ginen handik Adoainera.

Heldu bezain laister, oroit-harria ez zela ezarria ikusi genuen. Eta ikusten zenez, asmo haundirik ere ez. Alkatea, guk oroit-harria ezarri nahi genuen etxeko nagusia da, eta berak ekarrarazi zuen argina.

Erdizkako lana bakarrik egin zuen gu han egon ginen denboran. Santa Fe izeneko elizan genuen omenaldiaren bigarren parte, eta argazki batzu atera ondoan abiatu ginen Santa Fe aldera.

Jende multzo bat bazen han inguruko herrietatik etorria, eta Juan Apechea euskaltzain urgazlea ere, Iruñetik etorria. Eguraldi gozagaitza genuen

auri eta haize bortitzarekin. Marzelino Garde, Adoingo erretorea ez zitzai-  
gun agurtzera ere agertu.

### Hitzaldiak

Santa Fe izeneko elizan meza eman genuen lehenik, bertan ginen apaize-  
tariko bost aldarean ginela.

Elizkizuna amaitu ondoan, eliza barnean egin zen jende aurreko omenal-  
dia. Felix San Martin, Eparoz-ko erretoreak sarrera emanik, J. M. Satrustegi  
mintzatu zen lehenik. Agurraren ondotik, Euskaltzindiaren eginkizunen berri  
eman zien jendeei. Ehun urtez euskarak Nafarroan egin duen atzerakada  
aipatu zuen gero. Adoingo Esteban euskaraz mintzo zen, eta bertako jen-  
deek ez dute uste lurralde harek euskararekin zer-ikusi haundirik baduenik.  
Kaputxinoek gerra aurrean egin zuten lana gogora ekarri zuen gero, esker  
ona agertuz. Lurralde haietan erdi bazterturik bizi diren jendeei etorkizun  
oparoa opatu zien bukatzeko.

Juan San Martin ezagutua da lurralde hartan. Zokorik baztertuena nun  
ote zegoen bilan ibili ondoan aukeratu omen zuten Urraul bailara. Begi ona  
izan zuten, noski. Bertakoezin izandako lehen harremanak aipatu ondoan,  
han egindako lanaren laburpena eman zuen, euskal kutsuko berriak azpima-  
rratuz. Bertako euskara ez da, nunbait, hain galdu zaharra, izen eta abizene-  
kin jasotako jendeek zioetenez. Arrera ona egin zietela eta erraztasun guziak  
izan omen zituztela aitortu zien eskerrak emanez.

Azkenekotz, Ancin aita kaputxinoak hartu zuen hitza. Zenbat eratako  
omenaldiak egin zaizkion Adoingo kaputxinoari, esan zuen lehenik. Erroma-  
ko arazoa zertan den agertu zuen gero, eta bat-bateko hitzaldi informala zela  
bera esanez, han hemenkako gauzetan jardun zuen.

Lokatzetan parrastan sartuz eta hotza hezurretan genuela amaitu  
genuen, gauaz, Adoingo Esteban agurgarriaren omenaldia. Bidean ez  
genuen, beste alde, ostatu bat irekirik aurkitu eta afaldu gabe sartu ginen  
Urdiainen.

Ongi amaitua, ondo konda!